

ANALISIA



Europar hartutako txorrotako ur laginen %70etan mikroplastikoak aurkitu ditu ikerketa batek.

Oharkabeko eskandaluak



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Milioika tona plastiko ingurumenera jaulkitzeak sortzen dituen arazoez oharturik, gure agintariek aspaldi heldu zioten material horrekiko bizikidetzeta modu arrazionalagoan antolatzeke lanari. Hurrengo pasarte irailaren 26an izango da; egun horretan, Europako Batzordeak plastikoen estrategia berria eztabaidatuko du.

Ez dakigu mahaiaren inguruan jesarriko direnek kontuan hartuko ote dituzten joan den astean plazaratu ziren mikroplastikoei buruzko ikerketaren emaitzak. Jakin bagenekien halakoen pilaketak ozeanoetan arazo latzak sortzen dituela, zuzenean fauna kaltetuz, eta zeharka gu, fauna hori jateko ohitura dugunez gero. Orain zabaldu dena da –ez lehenengoz, dena esatera– txorrotako ur ustez garbiarekin batera ere plastiko ugari irensten dugula. Europar, zehazki, edaten dugun hamar tragotik zazpitan. Eta plastikoarekin, hark dakartzan kutsatzaile ugari.

Herritar onberak pentsatuko du tamaina horretako mehatxu bati erantzun sendoa emango diotela osasun publikoak babesteko ardura dutenek. Baina logikarik sinpleena ere deformatu egiten da

tartean milioika euro, edo dolar, mugitzen dituzten industriak daudenean.

Glifosatoa

Adibide bat: Europako Batzordeak beranduenez abenduaren 31rako erabaki behar du ea baimena luzatuko dion 2015ean Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak “seguraski kantzerigeno” izendatu zuen glifosatoari. Zergatik ez dago debekatuta honezkero? Europako hiru agentziak, tartean elikagaien segurtasunaren zaindaria den EFSAk, esan dutelako ez dagoela arrazoirik glifosatoa –munduan gehien saltzen den herbizida– kaltegarria denik esateko.

Martxoan AEBetako epaile baten aginduz argitara ekarritako Monsantoaren barne-agiri batzuek erakusten dute enpresak aspalditik zekiela glifosatoak mutazioak eragiteko gaitasuna zuela. Uztailean, berriaz, ikertzaile independente baten txostenak erakutsi du EFSAk eta enparauk konposatuaren arriskua frogatzen duten zazpi ikerlan baztertu zituztela, hartaz kezkatu beharrik ez dugula ebazteko. Isilean joan da eskandalua, herritarren pozoiketara masiboaz ari garenean ohi denez.

EKONOMIAREN TALAIAN

Politika sozialak ezartzeko burujabetza



Juan Mari Arregi

Joan den astean, euskal gehiengo sindikala osatzen duten ELAK eta LABek ekintza batasuna irudikatzen duen beste urrats garrantzitsu bat egin zuten, “burujabetza prozesu aldebakarreko eta sozialaren” alde. Pauso esanguratsua Euskal Herriko gehiengo sozialaren interesen zerbitzura. Aitortzeko modukoa eta txalogarria da ekimena, sindikatu aberztaleen batasunerantz mugarria izan daiteke-eta.

Egongo da esango duenik eremu politikoan “sartzea” dela, alderdi politikoek protagonista izan behar omen duten tokian. Sindikatuek, baina, eskubide osoa dute politika sozial, ekonomiko eta laboralak eskatzeko, gehienez langile eta pentsionistek osaturiko jendarteari bete-betean eragiten baitie. Politika horiek norik erabaki, hobeak edo okerragoak izango dira. Testuinguru horretan, logikoa da salatzen dutena: Espainiako Estatuarekiko menpekotasunak kalteak ekartzen dizkie langile eta pentsionistei; gainera, agintariek ez dute borondateirik egoera hori gaintzeko eta alde-bikotasunak ez du funtzionatzen. Ondorioz, prozesu subiranista aldebakarreko eta sozialaren alde daude sindikatuok.

Apustu horrek eragina izango du prozesuan hartu beharreko erabakietan. Horregatik diote beharrezkoak direla “ezkerreko aliantzak”. Burujabetzarik ez izateak zailtasunak ekarri ditu negoziazio kolektiboan, jendea pobretu du, lana prekarizatu eta pentsioak eskastu. Burujabetzaren bidez eta euskal gehiengo sindikalak bultzaturik, aurrekontu eta politika fiskal sozialak ezar daitezke, ez eliteen zerbitzura, baizik eta jendartearen gehiengoaren mesedetan. Horretarako burujabetza mota batek baino ez du balio: osagai sozial indartsua duena.